

**DEPARTAMENTUKO BATZORDE IRAUNKORRAK 2022ko  
AZAROAREN 23an OSPATUTAKO OHIKO BILERAN LORTUTAKO  
AKORDIOAK**

1. 2022ko irailaren 27ko bileran jasotako Departamentuko Batzorde Iraunkorraren akta onartzea.
2. Joseba Agirreazkuenaga, Eduardo Alonso, Unai Belaustegi, Aritz Onaindia eta Xabier Zabaltza irakasleek aurkeztutako eskaera onartzea. Eskaera honek, Ekonomia Itunaren eta Foru Ogasunen Ikerketarako Agiritegiaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko hurrengo lau urteetarako akordioa jasotzen du.
3. 2021-2022ko memoria akademikoa onartzea eta Departamentuko web orrialdean zintzilikatzea.
4. Unai Belaustegi irakasleak Euskara Errektoreordetzak kaleratutako deialdira aurkeztu nahi duen liburuari oniritzia ematea. Euskara Errektoreordetzaren deialdia honakoa da: "EUSKARAREN ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN EUSKARAZKO IKASMATERIALGINTZA ETA ESKULIBURUGINTZA SUSTATZEKO 2022KO DEIALDIA". Liburuaren izenburua aldiz, beste hau: "Giza eta Gizarte Zientziak Bigarren Hezkuntzan: Irakasleen Prestakuntzarako Masterreko MALak egiteko adibideak eta euskarriak". Liburuaren koordinatzaileak Unai Belaustegi eta María José Villa izango dira. Eurekin, beste 7 egilek hartuko dute parte (4 masterreko ikaslek eta UPV/EHUko 3 irakaslek). Liburuaren helburua, irakasle masterreko ikasleentzat euskarri didaktikoak eskaintzea da.